



Nerea San Martin - Angela Paniego
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

J. K. Rowling	3
<i>Harry Potter eta Sekretuen ganbera</i>	
Sarrera	4
Kokapena	5
Gaia	7
Argumentua	7
Pertsonaiak	8
Istoria	10
Egituraketa	11
Baliabideak	12
Iritzia	13
Bibliografia eta webgrafia	14

J. K. ROWLING

Joanne Rowling idazle ingelesa da, J. K. Rowling goitizenaz ezaguna, bere liburuak sinatzeko erabiltzen duen izena da eta. 1965eko uztailaren 31an jaio zen Yaten, Gloucestershiren, eta hainbat aldiz aldatu zen bizilekuz bere gaztaroan. Exeterko unibertsitatean ikasi zuen filologia frantsesa eta klasikoa eta ikasketak amaitu zituenean Londresera joan zen, beste lan batzuen artean Amnistia Internazionalen lan egiteko.

1990ean Manchesterretik Londresera zioan trenan itxaroten zuen bitartean, atzerapenarekin zetorren eta, azti eta sorginen eskola bati buruzko ideia bururatu zitzaion eta Harry Potter liburu famatua idazten hasi zen. Aipatu berri dugun liburua idazten zebilen bitartean, Johannena ama hil zen eta horrek izugarritzko eragina izan zuen haren lehenengo eleberrian, Harry Potter protagonistaren gurasoen heriotzarenganako sentimenduak azpimarratzen ditu eta.

Londresen bizi ostean, Portugalera joan zen bizitzera, ingeles irakasle bezala lan egiteko eta han Jorge Arantes kazetari portugaldarrekin ezkondu zen. 1993ko uztailean bere alaba Jessica jaio zen, eta hilabete batzuk geroago bere senarrengandik dibortziatu ondoren, bere ahizparekin bizitzera joan zen.

1995ean, langabezian zegoen bitartean, Rowling-ek bere lehenengo eleberria bukatu zuen (*Harry Potter eta Sorgin Harria*). Bere lehenengo liburua argitaratu bezain laster, haren bizitza aldatu eta munduko idazlerik ospetsuenetariko bat bihurtu zen. Gaur egun Neil Michael Murrayekin ezkondua dago eta berarekin beste bi seme dauzka: Mackenzie eta David. Ospe handiko idazlea da eta munduko pertsonarik aberatsenetarikoa ere.

Beraren liburuak:

- *Harry Potter eta Sorgin Harria* (1997)
- *Harry Potter eta Sekretuen Ganbera* (1998)
- *Harry Potter eta Azkabango presoak* (1999)
- *Harry Potter eta Suaren Kopa* (2000)
- *Fantastic Beasts and Where to Find Them* (2001)
- *Quidditch Through the Ages* (2001)
- *Harry Potter eta Fenixaren Ordena* (2003)
- *Harry Potter eta Odol Nahasiko Printzea* (2006)
- *Harry Potter eta Herioaren erlikiak* (2007)
- *Eserleku hutsa* (2012)
- *The Cuckoo's Calling* (2013)
- *The Silkworm* (2014)



SARRERA

Harry Potter eta sekretuen ganbera J. K. Rowling idazle britaniarrak idatzitako Harry Potter sailaren bigarren liburua da. 1998. urtean argitaratu zen liburua eta hiru urte geroago Iñaki Mendigurenek euskaratu zuen eleberria, istorioaren filma egin baino urtebete lehenago.

Aipatutako saileko protagonista, Harry Potter mutil umezurtza, lehenengo eleberrian agertzen den bezalakoa da bigarrean; osaba-izeben etxean bizitza jasanezina dela eta Hogwarts magia eskola munduko lekuri onena dela uste du. Baina, istorioa oso desberdina da; aurreko ikasturtean Lord Voldemort bigarren aldiz garaitu ondoren, aurten erantzukizun gehiagoko arazoetan sartzen da eta.

Eskola hartako abenturetan oinarritzen da nobela, Harry azti gaztearen eta beraren lagun abenturetan. Alegiazko, abenturazko eta misteriozko eleberria dela esan dezakegu aztiak, abenturak, etab. batzen dituelako ingurune ezezagun eta fantasiakoan, Hogwarts azti eta sorgin eskolan. Baina komunitate magikoari lehenengo eleberrian baino arreta gutxiago jarritz, Harryk bereganako dituen zalantzetan, konfiantza faltan gehiago kontzentratuz; istorioa sakonagoa dela esan daiteke.

Aldi berean, istorioa kontaturik dagoen estilo sinplea edozein irakurle harrapatzeko gai den eleberria bihurtzen du.

KOKAPENA

Liburu hau, gehien bat Hogwarts magia eskolan kokatzen da, idazleak asmatutako azti eta sorginentzako eskola.

Hogwartsera Eskozia eta Erresuma Batuko ume eta nerabeak doaz magiaren erabilera, magiari buruzko historia eta beste hainbat gauza ikastera. Lantzen dituzten jakintzagaien adibide bezala, sorginkeri, edabe, transformazio edo arte ilunen kontrako irakasgaiak dira aipagarriak. Eskola Eskoziako muino batean kokatuta dago eta bakarrik izaki magikoentzat ikusgarria da, “muggle” izakiengandik babesteko –muggleak magia gabeko pertsonak dira istorio honetan–. Zazpi solairutan banatuta dago eta altuera handiko hainbat dorrez hornituta dago. Barruan ikasgelak eta neska-mutilen logeak gain, jantoki erraldoi bat, liburutegia eta beste hainbat gela misteriotsu eta magiko aurkitu daitezke. Kanpoan, aldiz, Quidditch zelaia –azti eta sorginen artean, magia gabeko pertsonon artean futbola den bezain ospetsua den kirola da Quidditch-a–, berotegi pare bat, aintzira handi bat eta, bertako jendeak “Baso debekatua” deitzen duen basoa daude.



Hogwarts eskolaz aparte, istorioa beste leku interesgarrietan garatzen da; hala nola, *Privet Drive*-n, Weasley familiaren etxean, eta *Diagon kalexkan*.

Privet Drive Dursleytarren etxea kokaturik dagoen fikziozko auzunea da, Londresen hegoaldean kokaturikoa. Kale hartako laugarren zenbakian Harry bizi da bere osaba Petuniarekin, izeba Vernonekin eta bere lehengusu Dudleyekin.



Etxean sukalde bat, lau logela, egongela eta beste hainbat gela daude, baina ezagunena eskailerapeko armairua da, Hogwartsera joan baino lehen Harryren logela zena. *Privet Drive* auzotera leku errespetagarri eta aspergarria da, non auzokideak Harryri ez ikusiarena egiten dute, mutiko arrarotzat jotzen dutelako.

Harryk *Privet Drive* gorrotatzen du, baina are gehiago Dursleytarren etxea. Etxe hartan Harryk bere bizitzako urte txarrenak igaro ditu, Dursleytarren tratu txarrak eta mespretxuak jasanez eta beraz etxe horretan igarotzen duen denbora txikia jasangaitza egiten zaio. Liburu honetan Harry ikasturte amaieratik ia hurrengo ikasturtearen hasierara arte pasatzen du Dursleytarren etxean, baina beti buruan Hogwarts eta mundu magikoa, benetan faltan botatzen duena.

Weasley familiaren etxea edo Untxi-zuloa, haiek deitzen duten bezala, Ottery St Catchpolen kokatzen da, herritik kanpoxeago.

Zazpi solairu ditu eta nahiko etxe kalamastra da, liburuan esaten den bezala garai batean harrizko txerritegi handi bat izan zela dirudi, baina orain gela asko dauzka erantsita han eta hemen. Etxetik hurbil zelai bat dago, Ron eta bere anaiak Quidditchera jolasten duten zelaia, zuhaitzez inguratuta muggelen bistatik izkutatzeke. Bestalde, lorategi handi bat dauka etxeak, belar altuez beteta, eta bertan gnomo ugari bizi dira.

Harryrentzat etxe liluragarria da, magiaz beterikoa eta harentzat munduko lekurik gustukoenetakoa bihurtzen da, Hogwartsen ondoren, noski.



Azkenik, *Diagon kalexka* Londresen kokaturiko idazleak asmatutako kalea da, magiaz beterikoa. Mundu magikoan Londreseko denda gune nagusia da, non ia edozein gauza eros daitekeen. Muggeletatik ezkutatuta dago baina seme-alabei laguntzera joatea baimentzen da mugleei, seme-alabek botere magikoak dituztenean.



Diagon kalexkan Gringotts banku magikoa, *Flourish and Blotts* liburu denda, *Quidditcheko Kalitatezko Gaiak* denda, *Gambol and Japes* aztikeriazko txantxa-denda, *Ollivanders* makilen denda eta beste hainbat denda aurkitu daitezke bertan.

Harryk liburu honetan *Diagon kalexkara* bidaiatzen du klaserako materiala erosteko eta han hainbat pasadizo biziko ditu.

Eleberri honetan istorioaren garai zehatza ematen duen bakarra da, Sir Nicolasen —Nicolas Ia Lepogabea— heriotzaren 500. urteurrena dela esatean. Sir Nicolas 1492ko urriaren 31n hil egin zen eta bere heriotzatik 500 urte igaro direla jakinda, istorioa 1992. urtean garatzen dela jakin dezakegu, Harryk 12 urte zituela.

GAIA

Eleberraren gai nagusia leialtasuna, balentria eta lagun eta familiarekiko maitasuna dira, istorioan zehar garatzen direnak. Gai horiek guztiak gehienbat Harryren bidez agertzen dira, bere aukera eta burubideen eraginez. Adibidez, liburuaren amaieran Ginny salbatzen saiatzen denean, Harryk izugarritzko balentria erakusten du, bere bizitza arriskuan jartzen baitu, eta horrekin bat leialtasuna eta lagunekiko maitasuna, edozer gauza egiteko prest agertzen delako bere lagunei laguntzeko.

Bigarren maila batean, J.K. Rowling idazleak arrazakeria, aurreiritziak eta klaseen arteko oposizioaren kritika egiten du. Arrazismoaren arazoa azti-familiakoak ez diren azti eta sorginen kontrako jarreran islatzen da eta klaseen arteko oposizioa Weasley eta Malfoy familien arteko istilu eta gatasketan.

ARGUMENTUA

Bigarren aldiz Lord Voldemort azti iluna garaitu ondoren –*Harry Potter eta sorgin-harria* istorioa–, pazientzia gutxiz itxaroten du Harry Potterrek uda igarotzen den artean bere osaba-izeben etxean Hogwarts eskolako bigarren ikasturtearen hasiera. Uda osoan lagunak jaso gabe egoteak lagunak ahaztu egin dutela pentsarazten dio, baina hori ez da egia. Harryren berririk gabe bere lagun mina Ron Weasley, bere anai bikiekin, haren bila joatea erabakitzen du, hain txarto tratatzen duten etxe hartatik ateratzeko. Harryk beraiekin poz-pez ihes egin eta Weasleytarren etxean aste batzuk igaro ondoren, Hogwarts eskolara bueltatzen. Eskolan, aurreko urtean bezala, hainbat misterio eta arazo gertatuko dira, gehien bat Harryren inguruan, hark eta bere lagunak, berriro ere, partaide bihurtuz.

PERTSONAIAK

Harry Potter istorioko protagonista da. Txikia zela, Voldemort azti gaiztoak bere gurasoak hil zituen, baina bera ezin izan zuenez hil, botere izugarriak eman zizkion nahigabe. Harry izan zen Voldemortek hil ezin izan zuen bakarra. Ondorioz, bere izeba-osabekin bizi da, baina oso tratu txarra ematen diote. Bere lagun onenak Ron eta Hermione dira, Hogwarts azti eskolan ezagututakoak eta, bera bezala, Gryffindor etxeakoak dira.

Harry bere adinerako txiki, argal eta betaurrekodun mutila da, ile beltz eta bihurriarekin. Tximista formako orban bat du bekokian, txikia zela Voldemortek egindakoa eta bera hurbiltzen denean izugarritzko mina egiten diona. Maite duena defendatzeko bere burua arriskuan jartzen du behin eta berriro eta fideltasun harrigarria erakusten du. Oso mutil ezkorra da, beti gauza txarrak gertatuko zaizkiola pentsatzen baitu, eta berehala sumintzen da, gehienbat norbaitek bere lagunaren edo familiaren kontrako zeozer esaten duenean. Magia gaiei buruzko interes handia du eta horrek, batzuetan, arazoetan sartzea dakarkio Harryri.



Ron Weasley liburuaren pertsonai garrantzitsuenetako bat da. Familia xume bateko anai gazteena da, bost anai-arreben artean, eta familiako beste kideekin etxe zahar batean bizi da. Weasley guztiak bezala ilegorria da. Mutiko altu, argal eta oreztaduna da, esku eta oin handiak dituena. Begi urdinak ditu eta sudur luzea. Harry bezala mutiko leiala da, maite duen pertsonengatik edozer egingo lukeena. Dibertigarria, sarkastikoa eta apur bat erretxina da, baina gauza guztien ginetik lagun oso ona. Quidditcha gustuko du, jatearekin batera. Hainbeste anaien artean txikiena denez bere anaien arropa eta eskola material zaharra erabiltzera behartuta dago eta horrek guztiz amorratzen du.



Hermione Granger Harryren lagun minetako bat da eta pertsonaia oso garrantzitsua eleberrian. Sorgina izan arren “muggle” familia batean jaio zen, magia gabeko familian, baina horrek ez dio eragozten sorgin bikaina izateko bidea hartzerakoan. Neska azkar eta perfekzionista da, klaseko lehena beti. Aldi berean bidezko pertsona da, eta jatorra, besteen arazoez kezkatzen dena eta behar dutenei laguntza eskaintzen diena. Batzuetan bere izaera suminkorra izan daiteke, edozein galderarentzako erantzuna duelako eta beti ikasketetan pentsatzen dabilelako, baina lagun ona da.

Lord Voldemort istorioko antagonista da eta azti oso ezaguna da azti eta sorginen artean. Izugarria da berarenganako daukaten beldurra eta horregatik ez dute inoiz bere izena esaten. Bera hiltzaile sutsua da, eta zoritzarrez, jarraitzaile ugari ditu. Gaitza ezartzeko armada bat sortu zuen, Britainia Handian biolentziaz jokatu.

Harryren gurasoen hiltzailea da eta Harry hiltzera zihoanean bota zion madarikazioa beregana bueltatu eta guztiz indargabetu zen, Harryri nahigabe bere botereen zati bat emanez eta Harry azti indartsua eginez. Azti gaizto eta indartsua da, anbizio handikoa. Edozeren gainetik nahi duena boterea edukitzea da eta, bide batez, Harryren heriotza, hori delako bere indar eta botere guztiak berreskuratzeko bide bakarra.

Liburu honetan Voldemort Tom Riddleren izenarekin agertzen da, bere benetako izena eta gaztea zenean erabiltzen zuena.

Albus Dumbledore irakaslea, transformazio eta eraldaketen irakaslea izan zen, orain Hogwarts magia eskolako zuzendaria da, eta azti eta sorgin askoren ustez eskolak izan duen zuzendaririk onena. Dumbledore gaztea zela galdu zituen gurasoak eta arreba, eta horrek beregan eragin handia ekarri zuen. Bere garaiko azti boteretsuena bezala da ezagutua, Gellert Grindelwald garaitzeagatik, herensugeen odolaren hamabi erabilerak aurkitzeagatik eta Nicolas Flamelarekin alkimian egindako lanagatik da ezaguna. Voldemort azti iluna beldurtzen duen bakarra da, eta berak sortzen du Lord Voldemorten agerpenaren aurkako erresistentzia. Harry eta haren lagunak laguntzen ditu, era zuzenean izan ez arren, Harryri Fenixa eta Griffyndorreko espata bidaliz liburuaren amaierako borrokan.



Rubeus Hagrid Hogwarts eskolako zaindaria da. Dumbledore zuzendaria asko miresten du eta ez dio inori berari buruzko gauza txarrak esatea onartzen. Harryren adiskidea da, bere gurasoak ezagutzen baitzuen eta haien heriotzaren ostean Harryrenganako maitasun handia sortu zitzaion. Gizon leiala, lagunkoia eta bihozbera da, erraz negar egiten duena.

Erdi gizakia eta erdi erraldoia da, gizon arrunt bat baino bi aldiz altuagoa eta bost aldiz zabalago baita. Ile beltz, luze eta ugaria du eta aurpegia ia guztiz estaltzen dion bizarra. Begi beltz eta distiratsuak ditu, hainbeste ilearekin ia ikusezinak direnak.

Animali eta pizti arraroekiko maitasun eta interes berezia du, txikitatik datorkiona eta hori batzuetan bere burua arazoetan sartzea ekarriko dio. Aztertzen garen liburuan, adibidez, Hogwartsetik nola eta zergatik kanporatu zuten kontatzen da, berak hasitako pizti batekin erlazio estu bat duen istorioaren bidez.



ISTORIA

Harry Potter mutiko umezurtza da, txiki-txikitatik osaba-izebekin bizi izan dena, pasaden urtean Hogwarts magia eskolan lehen ikasturtea egin zuen arte —urte hartatik aurrera udak bakarrik igaroko ditu osaba-izeba Dursleytarren etxean, ikasturtea Hogwartsen igaroko baitu—, eta aurtengoa bere bigarren urtea izango da eskola hartan. Harryk izugarrizko gogoak ditu ikasturtea hasteko eta Dursleytarren etxetik alde egiteko, bertan bizitza jasanezina bihurtzen baitiote.

Egun batean Dobby izeneko etxeko iratxo bat etxera doakio, Hogwartsen arazoak edukiko dituela ohartaraziz, baina Harryk ez dio kasurik egiten, nahiz eta pixka bat larrituta gelditu. Dobbyk hainbat gauza egiten ditu Harryk Hogwartsera joateko gogoak kentzeko, adibidez, Harryren lagunen gutunak lapurtu, Harry ahaztuta daukatela pentsarazteko. Baina ez du lortzen, Ron Weasley, bere bi anai bikiekin, Harryren bila doalako aitaren auto hegalarian. Bikiek Harryri gauzak hartzen lagundu —bera giltzapean zegoen eta ezin zuen logelatik irten— eta beraiekin doa Weasleytarren etxera ikasturtea hasi arte.

Weasleytarrekin familiakoa balitz bezala bizi eta beraiekin egiten ditu eginbeharrekoak, *Diagon Kalexkara* hurrengo ikasturterako materiala erostea joatea, adibidez. *Diagon kalexkara* Joateko Floo hautsak erabiltzen dituzte, baina Harry ez daki nola bidaiatu hauts haiekin, eta beste leku batera heltzen da, Arte Ilunetako dendak dauden toki batera. Bertan bere etsai Draco Malfoy ikusten du, aitarekin, eta oso susmagarria iruditzen zaio. Hagridekin, bere laguna den magia eskolako basozainarekin, topo egiten du eta berak laguntzen dio Diagon Kalexkara joaten; Weasleytarrak berriro ere aurkituz eta bere beste lagun minarekin, Hermione Grangerekin ere topo eginez; gainera, Arte Ilunen Aurkako ikasgaiaren irakasle berria ezagutzen dute, eta Weasley jaunak Dracoren aitarekin istilu itzela sorrarazten du, oso harreman txarra baitute.

Hogwartsera joateko trena hartzerakoan, arazoak dauzkate, Dobbyk sortuak Harryri eskolara joatea eragozteko; baina ez du lortzen eta Ron eta Harryk berriro ere auto hegalaria hartuta eskolara bideratzen dira. Heltzerakoan istripu bat daukate eta ia eskolatik kanporatzen dituzte heldu bezain laster, egindakoa debekatuta dagoelako, baina bertan gelditzea lortzen dute.

Harry, Ron eta Hermione Nick Ia Lepogabea hil zeneko urteurrena ospatzeko festara doaz; bueltan atezainaren katua, Norris andrea, “hilda” aurkitzen dute —egia esanda, harri bihurtuta gelditzen da katua, baina inguruan dagoen jendeak hilda dagoela uste du— eta katuaren alboan horman idatzita “Sekretuen Ganbera” zabaldu egin dutela. Ikasle gehienek ez dakite zer den Sekretuen Gabera, eta askok interesa jartzen dute gai hartan, baina Harryk, Ronek eta Hermionek bereziki.

Antzeko mezu gehiago eta hainbat ikasle harri bihurtuta aurkitzen dira eskolan. Gure hirukotea gehiago ikertzen saiatzen da, edabe debekatu bat eginez, ganbera irekitzen duena Draco Malfoy dela uste dutenez, itxuraldatuta, bere lagunaren itxurarekin, berarekin hitz egiteko, eta beste hainbat gauza egiten dituzte. Harry eta Roneri, Myrtle negartiak (nesken komunetan bizi den mamua da Myrtle), komunetan aurkitutako eguneroko bat ematen die, “Tom Riddle” izeneko norbaiten egunerokoa.

Ronek ez du interes askorik jartzen egunerokoan, zuriz dago eta, baina Tom Tom Hogwartseko ikaslea zena, gainera Harry, larrituta, ikertzen jarraitzen dute, armiarma erraldoi batekin hitz eginez adibidez. Azkenean, ganberan argitzen dute. Hagrid eta Dumbledore, Draco Malfoyren aitaren erruz, eskolatik kanporatzen dituztenez, Harry eta Ron arriskuan jartzen dira ganberan sartuz hain inolako laguntza gabe. Baina beharrezkoa dela uste du bikoteak, Ronen arreba txikia Ginny ganberara eraman dutela jakitean. Gainera, irakasleek haietako bat joatea ganberara erabakitzen dute –Lockhart–, eta gainerakoek jakin gabe Harryk eta Ronek haiekin joatera behartzen dute irakaslea, berak benetan gaberara sartu nahi ez duen arren.

Ganberan hirurak daudela –Harry, Ron eta Lockhart maisua– Harryk Ron eta maisua atzean utzita, Harry Ginny –hiltzeko zorian– eta Tom Riddlerekin topo egiten du. Hark bere benetako identitatea argitzen dio –Lord Voldemort da– eta basiliskoaren laguntzarekin Harry hiltzen saiatzen da. Harryk, Dumbedorek bidalitako Fenixa eta Griffindorreko ezpataren laguntzaz, basiliskoa garaitu eta Tom Riddelekin amaitu egiten du, bere egunerokoa apurtzerakoan, Ginnyri berriz ere bizia emanaz (Ginnyk Tomen egunerokoan hainbat gauza idatzi zituen hark neskatoaren arima lapurtu egin zuen, baina Harryk hura apurtzean guztia ezabatu eta Lord Voldemortek lortutako indarra galdu zuen).

Ganberatik atera eta berehala Dumbedorrekin biltzen dira, guztia azaltzeko. Harryk aurreko urtean bezala Voldemort garaitzen du eta eskolako heroi bihurtzen da eta amaieran Durleystarrekin bizitzera bueltatu behar du, hurrengo ikasturtera arte.

EGITURAKETA

Eleberri hau egitura klasikoan oinarritzen da, hau da, hiru ataletan banatuta dagoela esan daiteke. Sarrera muggleen arteko munduan kokatua dago eta Weasleytarren etxean, Harry bertara eramaten dutelako ikasturtea hasi arte aste pare bat igarotzera –bere etxean bizitza jasanezina egiten diote eta–. Arazoak eta konponbidea, aldiz, eskolan gertatzen dira, berriro ere muggleen mundura bueltatzeko bidaiarekin azkena emanaz. Hasiera, muggleen arteko Harryren bizitza azaltzen du idazleak, lehenengo eleberrian bezala, eta Weasleytarrenean nola bizi diren azaltzen du baita; eskolarako bidaia hartu daiteke arazoen sortzaile gisa, eta Sekretuen Ganbera irekitzea da istorioaren ardatza. Hura nork irekitzen duen aurkitzeak eta barruko munstroa hiltzeak istorioaren konponbidea dakarte; eta azkenik muggleen mundura buelta istorioaren bukaera da, hurrengo ikasturtera arte. Nahiz eta kapitulu desberdinetan banatuta egon liburua, kapituluak ez dira istorioaren atal bereziak; ibilbide bakar baten parte dira.

BALIABIDEAK

Harry Potter eta sekretuen ganbera liburuak mezu handiko istorioa kontatzen du, fantasiako istorio baten bidez leialtasuna, balentria eta maitasunaren garrantzia gorai patzen baitu. Hasteko, gurasoen bihozgabetasuna eta anai-arrebekiko lehiakortasuna azaltzen du, liburuaren hasieran bere osaba-izebarekin bizi denean.

Beste aldetik, Ingalaterran gauzaturiko Errealismo literarioaren eragina du, istorioa eguneroko tokietan gauzatzen baita (eskola, etxea...).

Istorio fantastikoa izan arren ez da errealitatetik guztiz aldentzen, pertsonaiak alegiazko mundu batean ez ditu kokatzen eta, benetako munduan baizik. Gainera, batzuetan, mundu magikoa eta benetako munduak bat egiten dute, liburuaren hasieran bezala, Harry jende ez magikoarekin bizitzen dela kontatzen duenean egileak.

Narratzaile orojakile baten bidez –gertakarietatik kanpo dagoen narratzailea–, eta modu lineal zorrotzean kontatzen da istorioa. Pertsonaien eta eszenatokien deskribapenak motzak izan arren oso zehatzak dira, sentimenduen deskribapenak, aldiz, sakonagoak dira. Harryren itxuraz, adibidez, gauza esanguratsuenak aipatzen ditu idazleak, baina haren sentimenduen deskribapenak ugariagoak dira. Esan dezakegu, ez dela adierazten Harryren sudurraren forma, baina bai momentu bakoitzean dauzkan sentimenduak, bere ekintzetan eragin handia dutelako, eta itxura fisikoa ez delako hain garrantzitsua Rowling-entzat.

Hizkuntzaren aldetik, erregistro estandar batean dago kontatua istorioa, irakurle guztientzat ulergarria eginez. Baina, pertsonaietako baten hitz egite eran egiten du aldaketa bakarra, Hagridek hitz egiterakoan, euskara batutik aldentzen da, hizkuntza herrikoia –kasu honetan bizkaiera– erabiltzen baitu; ziurrenik irakurleon artean, pertsona jatorra den itxura emateko, eta bereganako nolabaiteko maitasuna sortzeko.

IRITZIA

Harry Potter eta Sekretuen Ganbera, Harry Potter saileko liburu guztiak bezala, irakurle gazteentzako magia, fantasia eta misteriozko liburu bikaina da. Irakurle on eta txarrak harrapatzeko gai den eleberri hori, Harry Potter saileko bigarrena da eta beraz gure azti maitagarriaren istorioaren hasiera ezagutzen dugula suposatzen duenez idazleak –bigarren eleberria ondo ulertzeko lehenengo irakurtzea beharrezkoa da–, ez du azti eta sorginen mundua gehiegi aurkezten eta Harryren pentsamendu eta zalantzetan jartzen du arreta gehiago, lehenengo eleberriak baino, sakonagoa dela esan dezakegu.

Istorio sakona azaltzeaz gain, fantasiako abentura ezin hobea eskaintzen du baita. Ez da harritzekoa milaka irakurle izan dituen liburu sail honen arrakasta, irakurtzen bukatu bezain laster hurrengo liburuarekin hasteko gogo itzelak sortzen baititu, Harry eta bere lagunei gertatuko zaizkien abentura berrien zain uzten zaituen eleberria da.

Istorio eta trama interesgarria izateaz aparte, gazteek dituzten hainbat arazo erakusten dituen eleberria da, irakurleari istorioarekiko lotura handia eratuz, irakurle gazteei zuzendutakoa delako. Liburuaren argumentua sinplea baina nahikoa da, eta istorioan zehar behin eta berriro agertuko diren pertsonai eta lekuen deskripzio bikainak egiten dira, nahiz eta laburrak izan, oso zehatzak baitira. Esan beharra dago, filma ikusi dutenentzat istorioak ez duela interesik galtzen, zehaztasun handiagoak eta abentura berriak agertzen direlako. Gainera, filmean aspergarriak ala sinpleak diruditen pertsonaiak askoz hobekak dira liburuan, irakurlearentzako erakargarriagoak bihurtuz.

Hainbat pasarte interesgarri dauzka istorioak, baina batzuk besteak baino askoz sakonagoak direla esan genezake, batez ere bukaerakoak. Sekretuen Ganberatik irteten direnean, irakasleekin hitz egin ondoren, Harry Dumbledore zuzendariarekin hitz egiten dagoeneko pasartean oso interesgarria den zerbait azaltzen dio zuzendariak Harryri, mutikoak bereburuarekiko dauzkan zalantzekin bukatzen duena –Harry istorio osoan zehar Voldemortekin dauzkan antzekotasunek beldurtzen dute, benetan gaiztoa izateak beldurtuko balu bezala, ez dagoelako ziur etxe egokian dagoen Gryffindorren–:

—Ba, Gryffindorren ipini baninduen –esan zuen Harryk garaituaren ahotsaz–, Slytherinera ez bidaltzeko eskatu niolako izango zen.

—Hain zuzen ere –esan zion Dumbledorek, berriro ere irribarretsu–. Eta horrek oso desberdin egiten zaitu Tom Riddlerengandik. Harry, gure trebetasunek baino askoz gehiago, gure aukerek erakusten dute benetan zer garen –Harry aulkian eserita geratu zen mugitu gabe, harrituta–. Harry, zu Griffindorrekoa zaren froga nahi baduzu, esan dizudana arreta handiagoz aztertzeko iradokitzen dizut. (278)

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

- *Harry Potter eta sekretuen ganbera*. J.K. Rowling. Elkar.
- <http://eu.wikipedia.org/wiki/Hogwarts>
- [http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_\(pertsonaia\)](http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_(pertsonaia))
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Hermione_Granger
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Ron_Weasley
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Lord_Voldemort
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Albus_Dumbledore
- http://eu.wikipedia.org/wiki/J._K._Rowling
- http://es.wikipedia.org/wiki/J._K._Rowling
- http://es.harrypotter.wikia.com/wiki/Harry_Potter
- http://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Lugares_ficticios_en_Harry_Potter#Little_Whinging